

# Non datza nire bihotza

## 6. saioa

Saio honetan, gure bizitzan benetan garrantzitsuak diren "gauzen" inguruan hausnartuko dugu eta horiez jabetuko gara: gauza esanguratsuak, zertan jartzen dugun gure ilusioa, idealei buruzko galderak, nire bizitzaren oinarri bihurtu nahi ditudan eta seme-alabei transmititu nahi dizkiedan balioak... guzti horiek azalduko dira taldean.

### SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Niretzat eta niretarrentzat benetan garrantzitsua dena antzeman.

Haurrak:

- Bizitzako gauzarik garrantzitsuenez jabetu

### GARAPENA

Denok gaudela, aurkezpena egingo dugu, bost minutu hartuz saiora nor eta nola etorri garen ikusteko. Taldean jende berria egonez gero, geure burua aurkez dezakegu.

Eragileak saioari sarrera egingo dio, ondorengo hitzok edo antzekoak erabiliz:

Denok ditugu geure bizitzan "altxor" dei ditzakegun gauzak, gure bizitza zentzuz betetzen dutenak, betetasuna ematen digutenak, Jesusek, behin, entzuten ari zirenei esan zenez: "zuen aberastasuna non, zuen bihotza han" (Mateo 6,2 1).

Batzuetan, bila aritu gara, badiugula konturatu gabe eta hainbat aldiz ustekabeen arkitzen ditugu. Seguru prest gaudela gure bizitzako beste hainbat gauza gure benetako altxorren truke emateko.

*"Jainkoaren erregetzarekin, landan ezkutatua dagoen altxorrekin bezala gertatzen da. Norbaitek aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du, eta pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta landa hura erosten du". (Mateo 13, 44)*

Altxor edo aberastasun horien inguruko galderak egingo ditugu: zer da niretzat balioetsuena, gehien betetzen nauena, inondik ere aldatuko ez nukeena, bizitzan benetan bilatzen dudana? Eta galderei erantzuteko, "altxorren mapa" eratuko dugu.

- Nagusiei irlaren planoak emango diegu. Hurrei beste bat emango diegu (lehengoaren antzekoa, baina beraiei egokitutako maparekin). Partaide bakoitzak "altxorren mapa"

eratuko du. Partaide bakoitzak bere benetako altxorrak, bizitzan bilatzen duena, betetasuna dakarkiona idatzi, marraztu, moztu (txikiak badira) egingo ditu. Lehenengo bakarka, familiako kide bakoitzak egingo du (idazten ez dakiten txikiak marraztu edo moztu eta itsatsi egin dezakete).

Behar adina denbora eskaini arikerari (15-20 minutu nahikoa dela uste dugu). Isilik jardungo dugu, musika jarrita dagoela.

- Ariketa bukatu ondoren, gurasoek seme-alabei eta alderantziz aurkeztuko dizkiote elkarri mapak, azkenean, familiaren "altxorren mapa" egiteko. Gure arte eta abilezia guztia erabiliko dugu, elkarrekin dibertitu eta mapa egiteko. Kolorea, irudimena, sormena... nahastatuko ditugu. Garrantzitsuena ez da marrazki dotoreak egitea, elkarren arteko komunikazioa baizik.

- Ondoren, talde handian, familia bakoitzak batera jarriko du bere mapa. Partaideen kopuruaren arabera, familiako kide batek ondorioztatutako gauzarik garrantzitsuenak komentatuko ditu. Partaide larregi badago, talde handia, talde txikiagotan banatu eta aurkezpenak egin.

Azken urratsa, mapa handi batean, gure bizitzetako gauzarik baliotsuenen laburpena egin dezakegu.

Mapa hau ikusteko moduko lekuan jarriko dugu, bertan ipinitako guztia ahantz ez dakigun. Argazkia atera eta familiei whatsapppe edo emailaz bidal diezaiekegu.

Saioari amaiera emateko, Aitagure errezatuko dugu, Aita Jainkoari eskerrak eman ez familian aurkitu dugun on guztiagatik.